# Organo Zikloa
# Ciclo de Órgano

75

**Donostiako Musika Hamabostaldia**
Quincena Musical de San Sebastián
**1939 - 2014**

**Donostiako Udala** Ayuntamiento de San Sebastián
**Gipuzkoako Foru Aldundia** Diputación Foral de Gipuzkoa
**Gobierno Vasco** Eusko Jaurlaritza

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

## Notas al programa: *Esteban Elizondo*

Organo Zikloan dozena bat kontzertu eskainiko dira 31. edizio honetan. Zikloari lotuta, Musika Erromantikoaren Interpretazioari buruzko Nazioarteko ohiko ikastaroa egingo da, eta Daniel Roth organista eta musikagile ospetsuak jardungo du, aurten ere, irakasle-lanetan.

Aurtengoan modu berezian ospatuko dira ziklo honetan Musika Hamabostaldiaren 75. urteurrena, Euskalerriaren Adiskideen Errege Elkartearen 250. urteurrena eta Donostiako San Inazio elizako Walcker organoaren eta Juan Urteaga organista eta musikagilearen mendeurrenak. Hainbat estreinaldi izango dira, besteak beste: Thierry Escaichena, zeinak Artzain Onaren Katedralean Musika Hamabostaldiak agindutako lan bat aurkeztuko duen; José Ignacio Ansorenak, bestalde, bere lan berria interpretatutako du lehen aldiz Deban. Musika Hamabostaldiaren 75. urteurrenari eta Euskalerriaren Adiskideen Errege Elkartearen 250. urteurrenari eskainiak izango dira bi emanaldiak.

Ospakizunen bideari jarraituko diote Daniel Roth, Thierry Escaich eta Thomas Ospitalen emanaldiek –horiek ere aipatutako urteurrenak gogoratuko baitituzte beren emanaldietan– eta baita San Inazio elizaren Walcker organoaren mendeurrena ospatuko duten kontzertuek ere, Ainhoa Zubillaga, Xabier Anduaga eta Gerardo Rifón-en eskutik, eta Loinatz eta Eskifaia abesbatzek Gerardo Rifónekin batera. Horiez gainera, Juan Urteagaren eta Euskalerriaren Adiskideen Errege Elkartearen mendeurrenak ekarriko dira gogora Esteban Elizondok interpretatuko duen kontzertuan.

Gure organo bikainen hotsaz gozatzeko aukera, azken batean.

El Ciclo de Órgano acogerá en su edición 31 una docena de conciertos. Ligado al mismo, se llevará a cabo el habitual Curso Internacional de Interpretación de Música Romántica, que contará de nuevo con la participación como profesor del famoso organista y compositor francés Daniel Roth.

Este año el ciclo va a celebrar de forma especial el 75 aniversario de la Quincena Musical, el 250 aniversario de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (RSBAP) y los centenarios del órgano Walcker de la iglesia de San Ignacio de San Sebastián y del organista y compositor Juan Urteaga. El ciclo acogerá estrenos, como el de Thierry Escaich, que presentará en la Catedral del Buen Pastor una obra encargada por la Quincena Musical, mientras que José Ignacio Ansorena interpretará por primera vez su nueva composición en Deba, ambas obras dedicadas al 75 aniversario de la Quincena y al 250 aniversario de la RSBAP.

Otros ejemplos de conmemoración serán las actuaciones de Daniel Roth, Thierry Escaich y Thomas Ospital –que también recordarán en sus respectivos conciertos dichos aniversarios– así como los conciertos que celebrarán el centenario del órgano Walcker de la iglesia de San Ignacio a cargo de Ainhoa Zubillaga, Xabier Anduaga y Gerardo Rifón, y los coros Loinatz y Eskifaia junto a Gerardo Rifón. Además, el concierto interpretado por Esteban Elizondo rememorará igualmente los centenarios de Juan Urteaga y de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

En definitiva, una nueva oportunidad de disfrutar del sonido de nuestros excepcionales órganos.

Tourseko San Martinen Eliza (Ataun)

3

Abuztua
2014
Agosto

Igandea
Domingo

18:30

# Ana Aguado, organoa

**Antonio Martín y Coll (c. 1671-1734)**
DIFERENCIAS SOBRE LA GAYTA
OBRA DE FALSAS CROMÁTICAS

**Bernardo Storace (1637-1707)**
LA FOLLIA

**Jan Pieterszoon Sweelinck (1562-1621)**
PAVANA LACRIMAE
FANTASÍA EN ECHO EN MODO DÓRICO, SWV 260

**Extractos del “Liber Fratrum Cruciferorum Leodiensium” (s. XVII)**
FANTASÍA DE PIETRO PHILIPPI
FANTASIE
ECHO POUR TROMPETTE

**Anónimo**
DAPHNE

**Johann Pachelbel (1653-1706)**
CIACONA EN FA MENOR

**José Elías (1687-1755)**
JUEGO DE MANOS DE QUINTO TONO DE PUNTO ALTO

**Joaquín Martínez de Oxinaga (1719-1789)**
FUGA EN SOL MENOR

**José Lidón (1748-1827)**
HIMNO AVE MARIS STELLA

**Antonio Martín y Coll**
XACARA
EL RATATA
EL VILLANO

Laguntzailea / Colabora:
**Ataungo Udala**



**Ana Aguado**

Palentzian jaio zen 1984an, eta bertako kontserbatorioan egin zituen piano eta organo ikasketak, A. Dalleres eta R. Frescorekin. Ondoren, organoa ikasi zuen O. Candendorekin Bartzelonako ESMUCen. Horrez gainera, hainbat estilotan espezializatu da, maisu handiekin: B. Haas, O. Latry, J. Laukvik, P. Crivellaro, J. C. Zehnder eta D. Roth, besteak beste. Hamabost urte zituenetik eskaini ditu kontzertuak garrantzizko musika-jaialdietan, bai Espainian bai atzerrian. Hainbat hiritako organo aipagarriak jotzeko gonbita egin diote, hala nola, Bartzelona, Madril, Cremona, Amsterdam, Alkmaar eta Manilan. Gainera, bere kontzertuak Radio Clásican eta Catalunya Músican eman dituzte. Sariak lortu ditu Espainiako hainbat lehiaketatan, esaterako Espainiako Gazte Musikalen Lehiaketa Iraunkorrean. 2010ean master bat amaitu zuen Amsterdameko Sweelinck Kontserbatorioan, J. van Oortmerssenen zuzendaritzapean, eta aurtengo ekainean amaitu ditu bere ikasketak M. Bouvard eta J. Jansenekin, Toulouseko CRRn. 2011-2012 ikasturtean “Pôle Basque de recherche, d’études, de pratique et de diffusion de l’orgue”-ko organista egoiliarra eta irakaslea izan da, Hendaian eta Donibane Lohizunen.

Nace en Palencia en 1984, en cuyo conservatorio estudia piano y órgano con A. Dalleres y R. Fresco. Posteriormente estudia órgano con Ó. Candendo en la ESMUC de Barcelona. Paralelamente, se ha especializado en diferentes estilos con grandes figuras como B. Haas, O. Latry, J. Laukvik, P. Crivellaro, J. C. Zehnder y D. Roth, entre otros. Ha ofrecido conciertos desde los quince años en importantes festivales de música, tanto españoles como extranjeros. Ha sido invitada para tocar en destacados órganos en ciudades como Barcelona, Madrid, Cremona, Ámsterdam, Alkmaar o Manila. Además, varios de sus conciertos han sido retransmitidos por Radio Clásica y Catalunya Música. Ha sido galardonada en varios concursos nacionales, como el Concurso Permanente de Juventudes Musicales de España. En 2010 concluye un máster en el Conservatorio Sweelinck de Ámsterdam bajo la dirección de J. van Oortmerssen, y en junio del presente año ha finalizado sus estudios con M. Bouvard y J. Jansen en el CRR de Toulouse. Durante el curso 2011/2012 fue organista residente y profesora de la “Pôle Basque de recherche, d’études, de pratique et de diffusion de l’orgue” en la región de Hendaya y San Juan de Luz.

Salbatore Eliza (Usurbil)

# 3

Abuztua
2014
Agosto

Igandea
Domingo

20:00

# Mami Sakato, organoa

**Johann Sebastian Bach (1685-1750)** (Transcripción: Marcel Dupré)
SINFONÍA DE LA CANTATA “WIR DANKEN DIR, GOTT, WIR DANKEN DIR” BWV 29

**Gottfried August Homilius (1714-1785)**
CORAL “SCHMÜCKE DICH, O LIEBE SEELE”

**Johann Sebastian Bach**
CONCIERTO EN RE MENOR
*Allegro – Grave – Fuga – Largo – Final (Allegro)*

**Alexandre Pierre François Boëly (1785-1858)**
CORAL “BIN ICH GLEICH VON DIR GEWICHEN”

**Camille Saint-Saëns (1835-1921)**
PRELUDIO Y FUGA EN MI BEMOL MAYOR OP. 99 Nº 3

**Maurice Duruflé (1902-1986)**
CORAL VARIADO SOBRE EL TEMA “VENI CREATOR”

**Charles-Marie Widor (1844-1937)**
ANDANTE SOSTENUTO DE LA 9ª SINFONÍA EN RE MAYOR “GÓTICA”

**Louis Vierne (1870-1937)**
FINAL DE LA 2ª SINFONÍA EN MI MENOR

Laguntzailea / Colabora:
**Usurbilgo Udala**



## Mami Sakato

Organoko espezialitatearen diploma lortu zuen Tokioko Musashino Academia Musicaen, Henriette Puig-Roget irakaslearekin. Ondoren, Saarlandseko Musikhochschulen (Alemania) eta Parisko Issy-les-Moulineaux-en jarraitu zuen bere prestakuntzarekin, Daniel Roth-en eskoletan. Azken horretan Organoko Lehenengo Saria lortu zuen, aho batez, 1990ean. Ondoren Olivier Latryrekin jarraitu zituen ikasketak, Saint-Maur-des-Fossés eskualdeko Kontserbatorioan, eta Organoko Domina lortu zuen 1992an. 1996 eta 1997 bitartean klabezina ikasi zuen Michael Eberth-ekin, Municheko Kontserbatorioan. Finalista izan zen 1990 eta 1991ko Bordeleko Organo Lehiaketetan, eta 1991n bigarren saria lortu zuen Haarlemeko (Herbehereak) César Franck Organo Lehiaketan. 2010ean egin zuen lehenengo grabazioa, “Deux Prières”, XX. mende hasierako organorako musikari buruzkoa, eta kritika bikainak lortu ditu. Tokioko Himonya Elizako organista titularra da, Aoyama Gakuin Unibertsitateko organista eta Japoniako Organisten Elkarteko kidea.

Diplomada en la especialidad de órgano en la Musashino Academia Musicae de Tokyo, donde fue alumna de Henriette Puig-Roget, continúa después su formación en la Musikhochschule de Saarlands en Alemania y en el Conservatorio d’Issy-les-Moulineaux de París en la clase de Daniel Roth, donde obtiene el Primer Premio de Órgano por unanimidad en 1990. Estudia después con Olivier Latry en el Conservatorio de la región de Saint-Maur-des-Fossés, donde obtiene la Medalla de Órgano en 1992. Entre 1996 y 1997 estudia clavecín con Michael Eberth en el Conservatorio de Munich. Queda finalista en las ediciones de 1990 y 1991 en el Concurso de Órgano de Burdeos, y gana el segundo premio en el Concurso de Órgano César Franck de Haarlem (Países Bajos) en 1991. Su primera grabación “Deux Prières” de 2010, dedicada a la música para órgano de principios del siglo XX, ha obtenido excelentes críticas. Es organista titular de la Iglesia Himonya de Tokyo, organista de la Universidad Aoyama Gakuin y miembro de la Asociación de Organistas de Japón.

Loiolako Santutegia (Azpeitia)

3

Abuztua
2014
Agosto

Igandea
Domingo

20:00

# Thomas Ospital, organoa

**Alexandre Pierre-François Boëly (1785-1858)**
FANTASÍA Y FUGA OP. 18 N° 6

**Charles-Marie Widor (1844-1937)**
ANDANTE SOSTENUTO DE LA 9ª SINFONÍA EN RE MAYOR “GÓTICA”

**Thomas Ospital (1990- )**
IMPROVISACIÓN SOBRE “IRTEN EZAZU ANDRE MARIA” *

**Louis Vierne (1870-1937)**
ADAGIO DE LA SINFONÍA N° 3 OP. 28
FINAL DE LA SINFONÍA N° 2 OP. 20

**Gaston Litaize (1909-1991)**
SCHERZO

**Olivier Messiaen (1908-1992)**
TRANSPORTES DE ALEGRÍA DE UN ALMA DELANTE DE LA GLORIA DE CRISTO QUE ES LA SUYA (DE LA ASCENSIÓN)

**Thomas Ospital**
IMPROVISACIÓN SOBRE “EL HIMNO DE LA ALEGRÍA” DE L . V. BEETHOVEN **

* En el 250 aniversario de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
** En el 75 aniversario de la Quincena Musical de San Sebastián.

Laguntzailea / Colabora:
**Azpeitiako Udala**



## Thomas Ospital

1990ean jaio zen, Aiherran. Baionako Kontserbatorioan egin zituen ikasketak, Esteban Landartekin, eta organoko diploma lortu zuen 2008an, kalifikazio onenekin. Urte hartatik aurrera, Parisko Kontserbatorioan ikasi zuen, Olivier Latry eta Michel Bouvardekin, eta inprobisazioa landu zuen Philippe Lefebvre eta Thierry Escaich-ekin. 2012an New Orleanseko (Estatu Batuak) Katedraleko “artista egoiliarra” izan da sei hilabetez. Sari ugari irabazi ditu, aipagarrienak: lehenengo saria Zaragozako Organoko Nazioarteko Lehiaketan (2009), Duruflé saria eta publikoaren saria Chartreseko Lehiaketan (2012), eta bigarren saria Toulouseko Xavier Darasse Lehiaketan (2013). Ziburuko Elizako Dominique Thomas organo berriko organista titularra da. Horrekin batera, kontzertuak eskaintzen ditu Espainia, Frantzia, Alemania, Holanda, Grezia, Suitza, Finlandia eta Estatu Batuetan, eta bakarlari gisa ez ezik, ganbera-taldeko edo orkestrako kide gisa ere jotzen du. Orain dela gutxi, Camille Saint-Saëns-en orkestra eta organorako 3. Sinfonia interpretatu du Euskadiko Orkestrarekin eta Jun Märkl-ekin. Inprobisazioak garrantzizko lekua du bere jardueran, eta hotsik gabeko filmak laguntzen ditu, zuzeneko inprobisazio-lana eginez.

Nacido en 1990 en Ayherre, estudia en el Conservatorio de Bayona con Esteban Landart, donde obtiene el diploma de órgano en 2008 con las máximas calificaciones. Desde ese año estudia en el Conservatorio de París con Olivier Latry y Michel Bouvard, donde también trabaja la improvisación con Philippe Lefebvre y Thierry Escaich. En 2012 ha sido durante seis meses “artista en residencia” de la Catedral de Nueva Orleans (EEUU). Ha ganado el primer premio en el Concurso Internacional de Órgano de Zaragoza en 2009, premio Duruflé y premio del público en el Concurso de Chartres en 2012, y el segundo premio en el Concurso Xavier Darasse de Toulouse en 2013. Es organista titular del nuevo órgano Dominique Thomas de la Iglesia de Ciboure. Compagina esta actividad con conciertos en España, Francia, Alemania, Holanda, Grecia, Suiza, Finlandia o EEUU, tocando tanto como solista, como en formato de cámara u orquestal. Recientemente ha interpretado la Sinfonía nº 3 para orquesta y órgano de Camille Saint-Saëns con la Orquesta de Euskadi y Jun Märkl. La improvisación tiene un lugar importante en su actividad, y acompaña también películas mudas, improvisando en directo sobre ellas.

San Bizente Eliza (Donostia)

4

Abuztua
2014
Agosto

Astelehena
Lunes

20:00

# Daniel Roth, organoa

**Johann Sebastian Bach (1685-1750)**
PRELUDIO Y FUGA EN SOL MENOR BWV 535
CORAL “SCHMÜCKE DICH O LIEBE SEELE” BWV 654

**Robert Schumann (1810-1856)**
FUGAS Nº 2 Y Nº 4 SOBRE EL NOMBRE DE B.A.C.H.

**Daniel Roth (1942- )**
IMPROVISACIÓN SOBRE UN TEMA DEL CONDE DE PEÑAFLORIDA *

**César Franck (1822-1890)** (Transcripción: Daniel Roth)
REDENCIÓN, INTERLUDIO SINFÓNICO

**Jehan Alain (1911-1940)**
SCHERZO

**Daniel Roth**
FINAL TE DEUM
IMPROVISACIÓN SOBRE “EL HIMNO DE LA ALEGRÍA” DE L. V. BEETHOVEN **

* En el 250 aniversario de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
** En el 75 aniversario de la Quincena Musical de San Sebastián.



## Daniel Roth

Frantses organista handienetakotzat hartua da gaur egun, eta hainbat postutan jardun du, bai interprete gisa, bai irakasle gisa. 13 urtez Parisko Sacre Coeur Basilikako organista izan zen, eta 1985. urteaz geroztik Parisko St. Sulpicekoa, Ch. M. Widor, M. Dupré eta J. J. Grunenwald aritu ziren postu berean. Parisko Kontserbatorioan ikasi zuen, eta hainbat sari irabazi zituen, 1971n Grand Prix de Chartres, besteak beste. Irakasle jardun du kontserbatorio hauetan: Marseilla, Estrasburgo, Saarbrücken eta Washington D.C.-ko Unibertsitatean. Frankfurteko Musikhochschule-n ematen ditu gaur egun eskolak. Mundu osoan eskaini ditu errezitalak, eta disko ugari grabatu ditu Philips, EMI, Erato eta Arion diskoetxeentzat, XVII. mendetik hasi eta gaur egun arteko lanekin. Horrez gainera, organorako musikagile ospetsua da eta bere katalogoaren barruan daude organo bakarrerako lanak, eta baita organo eta flauta, korua a capella, korua eta organoa, bakarlariak, korua eta organoa aukeretarako ere. Bestalde, hitzaldi ugari ematen ditu, irakasle jarduten du hainbat ikastarotan eta epailea da nazioarteko lehiaketetan. Ohorezko Legioaren Zalduna da, Arteen eta Letren Ofiziala eta Londresko Organisten Royal Collegeko Ohorezko Irakaslea.

Considerado uno de los organistas franceses más importantes de la actualidad, ha ocupado varios puestos como intérprete y como profesor. Durante 13 años fue organista de la Basílica del Sacre Coeur de París y, desde 1985, de St. Sulpice de París, en el mismo puesto que habían ocupado Ch. M. Widor, M. Dupré y J. J. Grunenwald. Estudia en el Conservatorio de París, y obtiene varios premios, entre ellos el Grand Prix de Chartres en 1971. Ha sido profesor en los conservatorios de Marsella, Estrasburgo, Saarbrücken y en la Universidad Católica de Washington D. C., y actualmente imparte clases en la Musikhochschule de Frankfurt. Ha dado recitales por todo el mundo y grabado numerosos discos para los sellos Philips, EMI, Erato y Arion, con obras desde el siglo XVII hasta nuestros días. Es también un reputado compositor de música para órgano y en su catálogo figuran obras para órgano solo, órgano y flauta, coro a capella, coro y órgano, solistas, coro y órgano. Asimismo, lleva a cabo una intensa actividad como conferenciante, profesor de cursos y jurado en concursos internacionales. Es Caballero de la Legión de Honor, Oficial de las Artes y Letras y Profesor Honorario del Royal College de Organistas de Londres.

Koruko Andre Mariaren Basilika
(Donostia)

**5**

Abuztua
2014
Agosto

Asteartea
Martes

20:00

**19:00: Acto de ingreso de Esteban Elizondo en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.**
**Título de la lección de ingreso: "Reflexiones y experiencias en torno a la interpretación organística".**

# Esteban Elizondo, organoa

**Felipe Gorriti (1839-1896)**
MARCHA FÚNEBRE
*(Obra premiada en París el 26 de junio de 1882)*

**Nemesio Otaño (1880-1956)**
ADAGIO

**Luis Urteaga (1882-1960)**
FINAL
*(Obra dedicada al Padre Nemesio Otaño)*

**Juan Urteaga (1914-1990)**
PLEGARIA
*(En el centenario de su nacimiento. Miembro de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País)*

**Padre Donosti (1886-1956)**
ENTRADA
*(Miembro de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País)*

**José de Olaizola (1883-1969)**
COMUNIÓN
*(Organista de Santa María del Coro)*

**José Mª Beobide (1882-1967)**
INTERMEZZO SINFÓNICO CROMÁTICO
*(Obra premiada en el Congreso de Música Religiosa de Sevilla de 1908)*

**Jesús Guridi (1886-1961)**
EL BUEN PASTOR
*(Del Tríptico del Buen Pastor. Obra premiada en el concurso convocado en 1954 con motivo de la inauguración del órgano de la catedral del Buen Pastor de San Sebastián)*

**Tomás Garbizu (1901-1989)**
TOCCATA CON DIAPENTE
*(Del Tríptico gregoriano. Obra premiada en el IV Concurso Internacional de Ávila de 1971)*

Babeslea / Patrocina
**Fundación Lartundo**



Argazkia / Fotografía: Luis Ibáñez

## Esteban Elizondo

Donostian jaio zen 1945ean. Bere jaioterriko kontserbatorioan organoko ikasketak T. Garbizurekin amaitu ondoren, Vienako Goi Mailako Musika Eskolan osatu zituen ikasketak A. Heillerrekin. Donostiako Kontserbatorioko katedraduna izan da, eta baita hainbat urtez zentro horretako zuzendaria ere. Lan handia egin du pedagogiaren, artearen, ikerketaren eta musikaren zabalkundearen eremuetan. 2002an doktoretza lortu zuen Bartzelonako Unibertsitatean, Bikain cum laude kalifikazioarekin, “La organería romántica en el País Vasco y Navarra” tesiagatik. EHUk eta Donostiako Orfeoiak ematen duten Ikerketaren Saria lortu zuen tesi horrengatik. Azken urteetan, euskal-nafar eremuko organo-ondarearen eta organorako musikaren ikerketan eta zabalkundean aritu da batez ere, bai mundu osoan kontzertuak eskainiz, bai musika-ikerketen, partituren argitalpenen eta 20 grabazio baino gehiagoren bitartez. 2009an Donostiako Udalak Herritar Merituaren domina eman zion, 2011. urtean Gaztela eta Leongo Organo Kultura Elkarteak Ohorezko Bazkide izendatu zuen, eta 2012an Organo Hispaniarraren Elkarteko lehendakariordea hautatu zuten.

Nace en San Sebastián en 1945. Después de finalizar sus estudios de órgano con T. Garbizu en el Conservatorio de San Sebastián, amplía conocimientos con A. Heiller en la Escuela Superior de Música de Viena. Ha sido catedrático del Conservatorio de San Sebastián y durante varios años ha desempeñado el cargo de director del centro. Ha desarrollado una importante labor en los campos pedagógico, artístico, de investigación y de divulgación musical. En 2002 recibe de la Universidad de Barcelona el doctorado con la calificación de Sobresaliente cum laude por su tesis “La organería romántica en el País Vasco y Navarra”. Recibe el Premio a la Investigación que conceden la UPV y el Orfeón Donostiarra por dicha tesis. En los últimos años, se ha centrado en la investigación y divulgación del patrimonio organístico y de música para órgano de la zona vasco-navarra, tanto a través de conciertos por todo el mundo, como por medio de publicaciones de investigación musical, ediciones de partituras y más de 20 grabaciones. En 2009 el Ayuntamiento de San Sebastián le concede la Medalla al Mérito Ciudadano, en 2011 la Asociación Cultural Organaria de Castilla y León le nombra Socio de Honor, y en 2012 es elegido vicepresidente de la Asociación del Órgano Hispano.

Artzain Onaren Katedrala (Donostia)

6

Abuztua
2014
Agosto

Asteazkena
Miércoles

20:00

# Thierry Escaich, organoa

**Charles Tournemire (1870-1939)**
VICTIMAE PASCHALI LAUDES

**Louis Vierne (1870-1937)**
ROMANCE Y FINAL DE LA SINFONÍA Nº 4

**Thierry Escaich (1965- )**
IMPROVISACIÓN EN ESTILO ROMÁNTICO DE UN PRELUDIO Y FUGA SOBRE UN TEMA DEL CONDE DE PEÑAFLORIDA *
ESQUISSE V **
ESQUISSE II RITUEL
ESQUISSE III VARIATION SUR UN SOUVENIR

**Joseph Ermend-Bonnal (1880-1944)**
PETITE RHAPSODIE

**Thierry Escaich**
IMPROVISACIÓN DE DANZAS SINFÓNICAS SOBRE UN TEMA DADO ***

* En el 250 aniversario de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.
** Estreno absoluto de la obra encargada por la Quincena Musical.
*** En el 75 aniversario de la Quincena Musical.



**Thierry Escaich**

Nazioartean izen handia duen musikagilea, organista eta inprobisatzailea da, eta funtsezko irudia da, halaber, musika garaikidearen panoraman. Thierry Escaich-en ustez, sorkuntza prozesu beraren osagai banaezinak dira hiru alderdi horiek. 1965ean jaio zen, eta 1997. urteaz geroztik Parisko Saint-Étienne-du-Mont Elizako organista izan da, Maurice Duruflé-ren lekuan. Mundu osoan eskaintzen ditu errezitalak, eta errepertorioko piezak ez ezik, berak osatutako lanak eta inprobisazioak ere eskaintzen ditu. Horrez gainera, hotsik gabeko filmak laguntzen ditu organoarekin edo pianoarekin. Azken emanaldien artean aipatzekoak dira hiri hauetakoak: Philadelphia, Viena, San Petersburgo, Londres, Berlin, New York, Los Angeles, Chicago, Tokio, Budapest, etab. Musikagile egoiliarra izan da Lilleko Orkestran, Bretainiako Orkestran eta Lyongokoan, eta 2011. urteaz geroztik, musikagile elkartua da Parisko Ganbera Orkestran. 100 lanetik gora ditu bere katalogoan, nazioarteko orkestrek eta artistek interpretatuak. 1992. urteaz geroztik, Parisko Goi Mailako Kontserbatorioan dihardu irakasle gisa. Landu dituen sorkuntzaren eremu horiek guztiek izan dute beren isla Escaichen diskografian, bereziki Accord/Universal eta Indésens diskoetxeentzat.

Compositor, organista e improvisador reconocido internacionalmente, Thierry Escaich es una figura clave en el panorama actual de la música contemporánea. A su modo de ver, estas tres facetas son elementos indisolubles de un mismo proceso creativo. Nacido en 1965, ha sido organista de la Iglesia de Saint-Étienne-du-Mont de París desde 1997, sucediendo a Maurice Duruflé. Ofrece recitales por todo el mundo, combinando piezas de repertorio con sus propias composiciones e improvisaciones, y también acompaña sesiones de cine mudo al órgano o al piano. Sus últimas actuaciones le han llevado a Philadelphia, Viena, San Petersburgo, Londres, Berlín, Nueva York, Los Ángeles, Chicago, Tokyo, Budapest, etc. Ha sido compositor residente en la Orquesta de Lille, en la Orquesta de Bretaña y en la de Lyon, y actualmente es compositor asociado en la Orquesta de Cámara de París desde 2011. Su catálogo incluye más de 100 obras, siendo interpretadas por orquestas y artistas internacionales. Desde 1992, imparte clases en el Conservatorio Superior de París. Sus diferentes facetas creativas se han visto reflejadas en una abundante discografía, sobre todo para los sellos Accord/Universal e Indésens.

Andre Mari Eliza (Tolosa)

6
Abuztua
2014
Agosto

Asteazkena
Miércoles

20:00

# Óscar Candendo, organoa

**César Franck (1822-1890)**
FANTASÍA EN LA
CORAL Nº 1

**Louis Vierne (1870-1937)**
PIEZAS DE FANTASÍA
*Claro de luna op. 53, V*
*Impromptu op. 54, II*
*Carillon de Westminster op. 54, VI*

Babeslea / Patrocina:
**Fundación Lartundo**

Laguntzailea / Colabora:
**Tolosako Udala**



## Óscar Candendo

Organo, Piano, Klabezin eta Ganbera Musikako Goi Mailako Irakasle tituluak lortu zituen Donostiako Kontserbatorioan. Organoa ikasi zuen Baionako eta Paueko kontserbatorioetan, B. Carrau eta J. M. Mororekin. Toulousen jarraitu zituen ikasketak, M. Bouvard eta J. W. Jansen irakasle finko zituela, eta beste hainbat maisu gonbidaturekin. M. Torrentekin jarraitu zuen bere prestakuntza Bartzelonan, eta B. Haasekin Stuttgarten. Gazte Musikalen Lehiaketa Iraunkorrean lehenengo saria lortu zuen 1992an. Hurrengo urtean, Andrés Segovia eta J. M. Ruiz Morales sariak jaso zituen. Errezital ugari eskaini ditu Europan barrena: Orgelkonzerte Dom zu Salzburg, Internationale Orgeltage Kevelaer, Domorgelkonzerte Sankt Gallen, Orgues d'été à Bordeaux, Lisboako Festival Internacional de Orgao, Granadako Musika eta Dantza Jaialdia, Musika Hamabostaldia, etab. "Órganos Franceses en el País Vasco y Navarra" azterketaren egileetako bat da. Valladolideko Unibertsitatean Historiako eta Musikaren Zientzietako diploma lortu ondoren, V. Goicoechea musikagileari buruzko doktore-tesia egin zuen. ESMUCeko irakaslea da, Donostiako Artzain Onaren Katedraleko organista eta Easo Abesbatzako organista eta aholkulari artistikoa.

Obtiene los títulos de Profesor Superior en Órgano, Piano, Clavicémbalo y Música de Cámara en el Conservatorio de San Sebastián. Estudia órgano en los conservatorios de Bayona y Pau con B. Carrau y J. M. Moro. Continúa su aprendizaje en Toulouse con M. Bouvard y J. W. Jansen como profesores permanentes y diversos maestros invitados. Completa su formación en Barcelona con M. Torrent y en Stuttgart con B. Haas. En 1992 obtiene el Primer Premio en el Concurso Permanente de Juventudes Musicales. Al año siguiente le es concedido el Premio Andrés Segovia y J. M. Ruiz Morales. Ha ofrecido numerosos recitales en Europa: Orgelkonzerte Dom zu Salzburg, Internationale Orgeltage Kevelaer, Domorgelkonzerte Sankt Gallen, Orgues d'été à Bordeaux, Festival Internacional de Orgao de Lisboa, Festival Internacional de Música y Danza de Granada, Quincena Musical, etc. Es coautor del estudio "Órganos Franceses en el País Vasco y Navarra". Tras diplomarse en Historia y Ciencias de la Música en la Universidad de Valladolid, trabaja en su tesis doctoral sobre el compositor V. Goicoechea. Es profesor en el ESMUC, organista de la Catedral del Buen Pastor en San Sebastián, y organista y asesor artístico del Coro Easo.

San Inazio Eliza (Donostia)

**7**
Abuztua
2014
Agosto

Osteguna
Jueves

20:00

# Gerardo Rifón, organoa
# Ainhoa Zubillaga, mezzosopranoa
# Xabier Anduaga, tenorra

***Centenario del órgano Walcker de la Iglesia de San Ignacio (1914-2014)***

**Giulio Caccini (1550-1618)**
AVE MARIA *

**Johann Sebastian Bach (1685-1750)**
ARIA "ERBARME DICH" DE "LA PASIÓN SEGÚN SAN MATEO"
"BENEDICTUS" DE LA "MISA EN SI MENOR"
"ET MISERICORDIA" DEL "MAGNIFICAT"

**Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)**
SUB TUUM PRAESIDIUM

**Conde de Peñaflorida (1729-1785)**
IRTEN EZAZU **

**Felix Mendelsshon (1809-1847)**
ARIA "SO IHR MIR" DEL ORATORIO "ELÍAS"

**Louis Vierne (1870-1937)**
CARILLON DE WESTMINSTER

**Felipe Gorriti (1839-1896)**
TOTA PULCHRA EST MARIA

**Gustav Mahler (1860-1911)**
IV MOVIMIENTO DE LA SINFONÍA Nº 2 "ULRICHT"

**Sigfrid Karg-Elert (1877-1933)**
PRELUDIO CORAL "NUN DANKET ALLE GOTT" OP. 65

**Pietro Mascagni (1863-1945)**
SANCTA MARIA DE "CAVALLERIA RUSTICANA" **

* Adaptadas para dúo por Juan Laborería.
** En el 250 aniversario de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

Babeslea / Patrocina
**Fundación Lartundo**



Gerardo Rifón



Ainhoa Zubillaga



Xabier Anduaga

## Gerardo Rifón

1962an jaio zen, eta Mariaren Bihotza Eskolanian sortu zitzaion musikarako bokazioa, A. Sierraren eskutik. Donostiako Kontserbatorioan ikasi ondoren, Baionan osatu zuen bere prestakuntza B. Carraurekin, eta Urrezko Domina lortu zuen 1995ean. 1980. urteaz geroztik, Donostiako San Inazio Parrokiko organista da. Talde askoren laguntzaile aritzen da, baina Donostiako Orfeoiarekin duen lotura da bereziki aipagarria.

Nacido en 1962, se despierta su vocación musical en la Escolanía del Corazón de María de la mano de A. Sierra. Tras estudiar en el Conservatorio de San Sebastián, culmina su formación en Bayona con B. Carrau, obteniendo en 1995 la Medalla de Oro. Desde 1980 es organista de la Parroquia de San Ignacio de San Sebastián. Acompaña frecuentemente a numerosas formaciones, destacando su vinculación con el Orfeón Donostiarra.

## Ainhoa Zubillaga

Herrialde askotan aritu da, hala nola Austria, Kuba, Espainia, Frantzia, Britainia Handia, Holanda, Mexiko, Polonia eta Txekiar Errepublikan, orkestra ospetsuen aurrean, eta maila handiko maisuek zuzendu dute, esate baterako Ceccato, Griffiths, Kout edo López Cobosek. Errepertorio zabala du sinfoniaren, operaren eta oratorioaren alorretan, eta antzinako musikako hainbat talderekin aritzen da lankidetzan. Errezital ugari eskaini ditu, eta hainbat disko grabatu ditu, diskoetxe batentzat baino gehiagorentzat.

Se ha presentado en países como Austria, Cuba, España, Francia, Gran Bretaña, Holanda, México, Polonia y República Checa ante prestigiosas orquestas, y dirigida por maestros como Ceccato, Griffiths, Kout o López Cobos. Aborda un extenso repertorio sinfónico, operístico y de oratorio, y colabora con diversos grupos de música antigua. Ha dado numerosos recitales y ha grabado varios discos para diferentes sellos.

## Xabier Anduaga

Orfeoi Txikian abestu zuen lehenengo, eta Donostiako Orfeoian gero. Gaur egun kantua ikasten ari da Donostiako Kontserbatorioan. Lehenengo errezitala 2012ko L. Urteaga Memorialean eman ondoren, bakarlari gisa jardun du Loiola, Beasain, Lekunberri, Irun edo Durangon. Aurten Bachen “Magnificat” kantatu du Gernikan eta Portugaleten, Leioako Kontserbatorioko Orkestrarekin eta San Juan Bautista Abesbatzarekin.

Canta en el Orfeoi Txiki y después en el Orfeón Donostiarra, y actualmente estudia canto en el Conservatorio de San Sebastián. Tras un primer recital en el Memorial L. Urteaga de 2012, actúa como solista en Loiola, Beasain, Lekunberri, Irún o Durango. Este año ha cantado en el “Magnificat” de Bach en Gernika y Portugalete con la Orquesta del Conservatorio de Leioa y el Coro San Juan Bautista.

# Thierry Escaich, organoa

**Edward Elgar (1857-1934)**
PRIMER MOVIMIENTO DE LA SONATA EN SOL MAYOR

**Thierry Escaich (1965- )**
CORAL VARIADO IMPROVISADO EN ESTILO CLÁSICO SOBRE UN TEMA DEL CONDE DE PEÑAFLORIDA *

**Felix Mendelssohn (1809-1847)**
SONATA Nº 1 EN FA MENOR
*Allegro moderato e serioso – Adagio – Andante – Allegro assai vivace*

**Thierry Escaich**
ANDANTE Y SCHERZO IMPROVISADO EN ESTILO ROMÁNTICO SOBRE UN TEMA DADO

**Maurice Duruflé (1902-1986)**
TOCCATA

**Thierry Escaich**
IMPROVISACIÓN LIBRE SOBRE DOS TEMAS DADOS **

* En el 250 aniversario de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
** En el 75 aniversario de la Quincena Musical.

*Ver biografía en concierto del día 6 de agosto.*

Laguntzailea / Colabora:
**Azkoitiako Udala**


Quincena





Andra Mari Eliza (Deba)

# 7

Abuztua
2014
Agosto

Osteguna
Jueves

20:00

# Koro Sáenz Agirre, organoa
# Miren Urbieta, sopranoa
# Jose Ignazio Ansorena, txistua

**Charles-Marie Widor (1844-1937)**
TOCCATA

**Aita Donostia (1886-1956)** (Arreglos: Lorenzo Ondarra)
EZTAI TALDEA

**Tomás Garbizu (1901-1989)**
ILARGI EDER

**Isidro Ansorena (1892-1975)** (Arreglos: Guillermo Lazkano)
BIRIGARROA

**Tomás Garbizu**
AVE MARÍA

**Luis Aranburu (1905-1999)**
BENDAÑA
*Allegro — Andante — Grazioso*

**Aita Donostia** (Arreglos: Tomás Aragüés)
OINAZEZ

**Pablo Sorozabal (1897-1988)**
HIRU ABESTI
*Euskalerria*
*Biotz bat*
*Baserritarra*

**Jose Ignazio Ansorena (1953- )**
ELKARREN BILA*

*Estreno absoluto.

Laguntzailea / Colabora:
**Debako Udala**


Koro Sáenz Agirre


Miren Urbieta


Jose Ignazio Ansorena

## Koro Sáenz

Donostian jaio zen. Solfeoa L. Urteagarekin ikasi zuen, J. Sáenzekin akordeoia, J. Padrosarekin pianoa eta T. Garbizurekin organoa. Ikasketak Fontainebleuko Amerikar Eskolan osatu zituen, Boulanger eta Cassadesusekin. Kontzertu ugari eskaini ditu, eta baita disko asko argitaratu ere. San Bizente Parrokian arrakasta handiz antolatu ohi diren organoko kontzertu didaktikoen aitzindaria izan zen, eta bertako organista titularra da gaur egun.

Nace en San Sebastián. Estudia solfeo con L. Urteaga, acordeón con J. Sáenz, piano con J. Padrosa y órgano con T. Garbizu. Perfecciona estudios en la Escuela Americana de Fontainebleu con Boulanger y Cassadesus. Ha ofrecido innumerables conciertos y editado discos. Fue la precursora de los conciertos didácticos de órgano, celebrados con gran éxito en la Parroquia de San Vicente, de donde es actualmente organista titular.

## Miren Urbieta

Donostian jaio zen 1983an. Irakasle-ikasketak egin zituen lehenengo, eta kantua ikasi zuen gero, Musikenen. Valentzian osatu zuen formakuntza, A. Zeddarekin, eta hainbat lehiaketatan lortu du lehenengo saria. Solista gisa jardun du EOSen, Bilboko Orkestran edo Valentziako Erkidegoko Orkestran, eta hainbat rol kantatu ditu, “Turandot”, “La Finta Giardiniera”, “Baserria” edo “Gabiraiak” lanetan. Kantuko irakaslea da Gasteizko Kontserbatorioan.

Nacida en Donostia en 1983, estudia Magisterio y después canto en Musikene. Ha completado estudios en Valencia con A. Zedda, y ha obtenido primeros premios en numerosos concursos. Ha cantado como solista con la OSE, la Orquesta de Bilbao o la Orquesta de la Comunidad de Valencia, y ha abordado diferentes roles en “Turandot”, “La Finta Giardiniera”, “El Caserío” o “Gavilanes”. Es profesora de canto en el Conservatorio de Vitoria.

## Jose Ignazio Ansorena

Euskal musikaren eremuan tradizio handiko familia batean sortu zen Donostian, 1953. urtean. Donostiako Kontserbatorioan ikasi zuen I. Ansorena aitonarekin, eta Filosofia eta Letrak lizentzia lortu zuen Donostiako EUTGn. 1979an Txistularien I. Lehiaketa irabazi zuen, eta konposizioko hainbat lehiaketa ere irabazi ditu. Txistuko Katedraduna da, eta Donostiako Udal Bandaren zuzendaria. Hainbat lan argitaratu ditu musika folklorikoari buruzkoak.

De familia con tradicional dedicación a la música vasca, nace en San Sebastián en 1953. Estudia en el Conservatorio de Donostia con su *aitona* I. Ansorena, y se licencia en Filosofía y Letras por los EUTG de San Sebastián. Ganador del I Concurso de Txistularis en 1979, ha ganado también varios concursos de composición. Es Catedrático de Txistu y director de la Banda Municipal de San Sebastián. Ha publicado diversos trabajos sobre la música folklórica.

Koruko Andre Mariaren Basilika
(Donostia)

8

Abuztua
2014
Agosto

Ostirala
Viernes

20:00

# Alumnos del Curso Internacional de Órgano Romántico

Urtero bezala, Interpretazio Ikastaroan jardundako zenbait ikasle Koruko Andre Mariaren Basilikan ariko dira beren musika-gaitasunak jendaurrean erakusten.

Como todos los años, una selección de alumnos del Curso de Interpretación actuará en la Basílica de Santa María, donde mostrarán sus aptitudes musicales.

Babeslea / Patrocina
**Fundación Lartundo**

**31**
Abuztua
2014
Agosto

Igandea
Domingo

18:00

# Loinatz Abesbatza
(**Junkal Guerrero,** zuzendaria)

# Eskifaia Abesbatza
(**Gorka Aierbe,** zuzendaria)

# Gerardo Rifón, organoa

**Concierto con motivo de la celebración de tres centenarios:**

**1. del órgano Walcker de la Iglesia de San Ignacio**
**2. de la Missa Paschalis de Luis Iruarrízaga**
**3. del fallecimiento del Papa San Pío X, autor del "Motu proprio" sobre la música sacra.**

**Eduardo Torres (1872-1934)**
ENTRADA FESTIVA

**Luis Iruarrízaga (1891-1928)**
KYRIE DE LA MISSA PASCHALIS
GLORIA DE LA MISSA PASCHALIS
CREDO DE LA MISSA PASCHALIS

**Ignacio Mocoroa (1902-1972)**
INTRODUCCIÓN Y FUGA SOBRE EL AMÉN DEL CREDO III

**Luis Iruarrízaga**
SANCTUS - BENEDICTUS DE LA MISSA PASCHALIS
AGNUS DEI DE LA MISSA PASCHALIS

**Nemesio Otaño (1880-1956)**
ANIMA CHRISTI

**Luis Iruarrízaga**
ESTRELLA DEL MAR (Xabier Anduaga, bakarlaria)
HIMNO AL CORAZÓN DE MARÍA

Babeslea / Patrocina
**Fundación Lartundo**



Loinatz Abesbatza




Eskifaia Abesbatza



Gerardo Rifón

## Loinatz Abesbatza

Pedro José Iguainek sortu zuen Loinatz Abesbatza, 1939an. Hamar urteko etenaldiaren ondoren, 1986an jarri zuen berriro ere abian X. Sarasolak Loinatz Abesbatza izenarekin, eta hura izan da zuzendaria 2011. urtearen amaiera arte. 2012ko urtarrilaz geroztik, Junkal Guerrero da taldearen zuzendaria. Urte horietan guztietan koru-lehiaketa askotan parte hartu du, eta sari ugari lortu ditu.

La Coral Loinaz fue fundada por Pedro José Iguain en 1939. Tras una década de inactividad, en 1986 resurge como Loinatz Abesbatza de la mano de X. Sarasola, quien dirige el coro hasta finales de 2011. Desde enero de 2012 es Junkal Guerrero quien asume la dirección del grupo. A lo largo de todos estos años han tomado parte en distintos certámenes corales, obteniendo diversos galardones.

## Eskifaia Abesbatza

Abesbatza misto bat da, Javier Bustok 1978an sortua. Taldearen ibilbidearen bermea dira garrantzizko jaialdietara joateko gonbita (Santiago de Cuba, Frankfurt, Fano, etab.) eta Europako lehiaketa nagusietan lortutako sariak (Spital, Mainhausen, Marktoberdof, Tolosa, Tours). M. Oca eta M. Zeberio zuzendari izan ondoren, 2001. urteaz geroztik Gorka Aierbe da zuzendaria.

Es un coro mixto fundado por Javier Busto en 1978. La invitación a importantes festivales (Santiago de Cuba, Frankfurt, Fano, etc.) y la obtención de premios en los principales concursos del circuito europeo (Spital, Mainhausen, Marktoberdof, Tolosa, Tours) avalan la trayectoria de esta formación. Desde el año 2001 Gorka Aierbe es su director, tras pasar por las manos de M. Oca y M. Zeberio.

## Gerardo Rifón

1962an jaio zen, eta Mariaren Bihotza Eskolanian sortu zitzaion musikarako bokazioa, A. Sierraren eskutik. Donostiako Kontserbatorioan ikasi ondoren, Baionan osatu zuen bere prestakuntza B. Carraurekin, eta Urrezko Domina lortu zuen 1995ean. 1980. urteaz geroztik, Donostiako San Inazio Parrokiko organista da. Talde askoren laguntzaile aritzen da, baina Donostiako Orfeoiarekin duen lotura da bereziki aipagarria.

Nacido en 1962, se despierta su vocación musical en la Escolanía del Corazón de María de la mano de A. Sierra. Tras estudiar en el Conservatorio de San Sebastián, culmina su formación en Bayona con B. Carrau, obteniendo en 1995 la Medalla de Oro. Desde 1980 es organista de la Parroquia de San Ignacio de San Sebastián. Acompaña frecuentemente a numerosas formaciones, destacando su vinculación con el Orfeón Donostiarra.

Eskerrak / Agradecimientos

**Tourseko San Martinen Eliza (Ataun)**
**Salbatore Eliza (Usurbil)**
**Loiolako Santutegia (Azpeitia)**
**San Bizente Eliza (Donostia)**
**Koruko Andre Mariaren Basilika (Donostia)**
**Artzain Onaren Katedrala (Donostia)**
**Andre Mari Eliza (Tolosa)**
**San Inazio Eliza (Donostia)**
**Andre Mariaren Eliza (Azkoitia)**
**Andra Mari Eliza (Deba)**



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE
inaem
INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

**Hamabostaldi berdea**
ingurumenarekin bat eginda
**Quincena verde**
en armonía con el medio ambiente

La Quincena Musical mantiene un año más su compromiso con el medio ambiente apoyando el proyecto **EtxEKOlanda**, en colaboración con la Fundación Cristina Enea y Donostia Kultura. Un punto de encuentro para todas las personas interesadas en iniciarse en el cultivo de huertos ecológicos.

Musika Hamabostaldiak ingurumenarekiko konpromezuari eutsiko dio aurten ere, Cristina Enea Fundazioarekin eta Donostia Kulturarekin elkarlanean **EtxEKOlanda** proiektuan esku hartuz, baratze ekologikoen landaketan interesik duen ororentzat sortutako topagunean.